


ezagutzen al duzu Donostia?

Ubako ama

Koruko Ama horretaz gain badugu donostiarrok beste amabirjin bat (askoz ere tradizio zaharragokoa gainera) zeina Ubako amabirjina den. Uba antzin-antzinako oinetxe bat zen; Altzako herriari zegozkion lurretan zegoen, Ametzagaña mendixkaren magalean eta Urumea ibaietik ez urruti. Toponimo zahar hau «Hua» izenarekin agertzen da dokumentu zaharretan; hortik dator gaurko «Uba», jatorki esaten den bezala, «salduba» edo «buruba» esaten diren bezelaxe. Uba oinetxea eta baserriak galdu ziren, baina ermitak hor dirau oraindik, zutik eta oso maitatua da gainera herritarren artean gaur egun ere, Euskal Herriko beste amabirjin eta santu askok bezala Ubako Amak hurrei ongi lo egiten laguntzen baitie, eta, zergatik ez? pertsona nagusiei ere berdin (magia horietan sinisten bada, noski!). Tradizioak dio bazko bigarrengoan Ubako amabirjinaren irudi txikiari musu ematen dioten hurrek lo ongi egingo dutela urte osoan. Horrexegatik deitzen zaio ere «Lo onetako ama». Jendea ingurutik eta Gipuzkoako alde guztietatik ere inguratzen da ospakizun honetara. Ubako Amabirjina Mesedee-tako Amaren egunean ospatzen da (irailak 24), Martutene-ko jaiekin batera.

JOSU TELLABIDE



Ubako amabirjinaren Eliza

Donostiako kantutegia



J.I. ANSORENAK proposatua

Goizian sartu

Goizian sartu tabernera eta
ateratzen naiz azkena,
egun guztian zurrutean eta
ez zait betetzen barrena.
Ai hau edari zoragarria,
neri gustatzen zaidana!
Maria Jesus, bihotzekoa,
bete hamaseigarrena.

Donostiako soziedadeetan asko eta euskaraz abesten zenean, hau ez zen faltatzen gehienotan. Kañotetan izenekoan omen zen bereziki maitea, gure aitona Isidro Ansorenari (1892-1975) sinistuz gero. Antzeko asko kantatu izan dira Euskal Herriko beste lekuetan. Egilearen arrastomik ez.